

# elkarberri

# 80

# Batzar Nagusia

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

2023ko urria - abendua / Doako alea

Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065




inscripción
inskripzioa

Bilbao
19 abril / aprilia 19
gratuita/doakoa




Edurne Andueza
*EFEO-ko diruzaina*

# editoriala

## Amestu dezagun

Inguruan gertatzen ari zaidana ona ala txarra den baloratzen ez dakidan une horietako batean nago. Dakidana da emozioen zurrunbilo bat sortzen didala, eta batzuetan pozik eta besteetan ezkorrago egonarazten nauela. Pentsatzen dut sentsazio hori uste duguna baino ohikoagoa dela eta egoerak unean daukagun gogo-aldartearen arabera baloratzera eramaten gaituela. Nire kasuan, jaiotzez baikorra naizela uste dut, eta, horregatik, gaur, amets egitea erabaki dut...

Amestuko dut... osasun-arloko profesionalen gabeziak, fisioterapeuta gisa, aintzatetsiagoak izateko aukera emango digula, pazienteei aplikatzen dizkiegun tratamenduetan erabakiak hartzeko aukera, batez ere horretarako oztopoak ditugun zentroetan. Hauxe da unea gure ezagutzari eta pertsonentzako tratamendurik hoberena erabakitzeko gaitasunari eta tratamendu hori aplikatzeari balioa emateko.

Amestuko dut... kalean lanean aritzen diren fisioterapeutekin. Gure gizartearen adina handiagotzearen ondorioz, gure auzo eta kaleetan lan egin beharko dugu, guztiok gure etxeetan kalitatez bizitzen jarraitu ahal izan dezagun. Dagoeneko ez da nahikoa zentro eta ospitaleetan lan egitea; kanpoan esku hartu behar dugu, pertsonengandik hurbil eta bizi diren inguruneetan.

Amestuko dut... tratatzen ditugun pertsonen helburuekin lan egingo dugula, ez geureekin. Nire ustez, oso atsegingarria da ikustea tratatzen ari garen pazienteak gurekin hitzartutako helburu bat lortu duela, helburu hori txikia izan arren.

Amestuko dut... itxarote-zerrenda luzeen eraginez gure asmamena loratuko dela, pertsonei garaiz lagundu ahal izateko. Bikain tratatzearen eta ez tratatzearen artean, “gris” asko daude, eta




gris horiek aplikatzearen alde egiten dut, bikaintasunera iristeko borroka baztertu gabe.

Amestuko dut... ikertzen duten fisioterapeutekin, beste batzuek pazienteei tratamendu-aukera onena aplika diezaioten. Horiek gabe gure lanbideak ez luke bilakaerarik izango, milaka teknika aplikatzen jarraituko genuke, aplikatzen dizkiegun pertsonen osasuna okertzen dutenak barne.

Amestuko dut... parte-hartze handiagoa, iritzi gehiago eta proposamen gehiago dituen Elkargo batekin, kritikak, indarguneak eta iradokizunak aztertuko dituenarekin, Elkargoa berau osatzen dugun guztiok baikara.

Amestuko dut... gizartean identifikatuko gaituen Gurutze Arrosa batekin; hasieran, auzoan ezagututo den Gurutze batekin, gero herrian, hirietan... mundu osoan ezagutuko den ikurra izatea lortu arte. Horri esker, gizarteak garen moduan identifikatuko gaitu, fisioterapeutak, eta beste mota bateko “terapiekin” nahastea saihestuko du, askotan gertatzen den bezala.

Amestuko dut..., nire ustez, amets egiten denean bakarrik lortzen direlako emaitza hobeak.

aurkibidea

3 editoriala
6 berriak
17 artikuloa
20 aholkularitza juridikoa
22 iragarkiak
26 elkargokide

**Lehendakaritza eta Zuzendaritza**
Iban Arrien Celaya
**Coordinación Koordinazioa:**
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
**Gauzatzea eta Maketazioa**
J&J Creativos
**Argazkigintza**
ORO
**Argitalpena**
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
**Hiruhilabeteko argitalpena**

**Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe. Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.**

**Elkargokideei emateko dohainezko alea**

# Batzar Nagusia

## Parte-hartze ikaragarria 2023ko abenduaren 16ko Batzar Nagusian. Gogoan hartzeko eztabaida kritiko eta konstruktiboa

Abenduaren 16an, elkargoaren Bilboko egoitzan 2023ko azken Batzarra egin zen. Jardunaldia pixka bat berandu hasi zen, fisioterapeuten euskal kolektibotik ezusteko jendetza etorri zela eta; egoera berri horren aurrean, hasieran jende guztia sartu ahal izateko egokitzapen logistikoak egin behar izan ziren, baina, bertaratuen eta elkargoko administrarien pazientzia eta eskuzabaltasun handiari esker, lortu egin zen.

Parte-hartze handiak berehala eztabaida bizi eta kritikoak ekarri zituen, eta zalantzarik gabe, urteko jardunaldi garrantzitsuenetako bat aberastu zuten. Elkargoko Batzarreko kideek adierazi zuten bezala, ekarpen horiek analisi sakona eta kudeatzeko politiken inguruko autokritikarako eta hobekuntzarako konpromisoa eragingo dute.

EFEOko presidente Iban Arrienek hausnarketa oso interesgarriak egin zituen lanbidearen egungo egoera eta testuinguruari buruz, lana hainbat “fronte aktibo”tan azpimarratuz, hala nola Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Arloko Langileei buruzko Legean xedatutakoa betetzearen etengabeko jarraipena – estatu-mailan ditugun eskumenak defendatzeko eredu eta erreferentzia, Instituzio honek duela zenbait urte landu zuena–, edo Euskadiko osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduak baimentzea arautzen duen Dekretua aldatzeko proposamena, batez ere Auzitegi Gorenaren Epaiaren bidez sustatua (2021eko azaroaren 3ko 1310/2021 Epaia); EFEOk horretan zuzenean esku hartzea eta ebaluatzea baimendu da garapenean zehar, txosten teknikoak bidaliz eta idazteko arduradun gorenekin aldizkako bilerak eginez. Arrienen hitzetan, “gure kolektiboarentzat arrakasta izugarria izan da”, errealitatean osasun-arlotik kanpo xede terapeutikoak dituzte eskuko terapietan jardun eta egitea guztiz galaraziko duen arau-esparrua ekarriko baitu.



Bestalde, Elkargoko Batzarreko idazkari Leire Peñak elkargoaren administrazioak eginiko jarduerak laburtu zituen; sailak goranzko joera du, eta erroldatutako 3.500 profesional baino gehiagori osoko arreta zerbitzua eskaintzen die. Era berean, Edorta Ansoleagak, elkargoko Intrusismo Batzordeko arduradunak eta Laguntza Juridikoko bozeramaileak, azken sasoian egindako jarduera, proiektu eta zerbitzu nagusien laburpen xehatua eman zuen, eta gure eskumen-esparruak babesteko araudiaren arloko azken jazoeren garrantzia azpimarratu zuen. Bereziki, Batzordeak agintaritza eskudunei jarritako dozenaka salaketa aipatu ziren; era berean, zentroak irekitzeko baimenei emandako lehenengo ezezkoak eta osasun zentro ez direnen publizitate-proposamenei egindako ukoak ere aipatu ziren, legezkotasunaren eta egiazkotasunaren printzipioei aurka egiten baitiete. Aurrerapen txikiak dira, oraindik ere jasaten dugun intrusismo profesionalaren dimentsio ikaragarria aintzat hartzen badugu; gure kolektiboan arazo historiko eta endemikoa da, baina, zalantzarik gabe, talde gisa itxaropen handiak ditugu, eta lortutako aurrerapausoekin harro gaude eta optimistak gara.

Borja Salcedo elkargokideak, elkargoko Komunikazio, Publizitate eta Protokolo Batzordeko bozeramaileak, Komunikaziorako 3.0 Plan Estrategikoa aurkeztu zuen, besteak beste, leihatila digital bakarra sortzea edo gizartean Fisioterapiaren gaineko ezagutza indartu nahi duten mikrokanpaina publizitarioak sortzea azpimarratuz. Batzordeak, aurreko deialdietan onetsitako aldaketa-proposamena aintzat hartuz, “EFEOren logotipoa” aztertu eta diseinu berria egiteko lana egin du; behin betiko bozketa egin da eta elkargoaren irudi korporatibo berria aukeratu da. Irudi berria, joera berrietara egokitua, egokitze-epea amaitu eta komunikazio-proiektua garatu ostean ezarriko da.

Ondoren, Borja Salcedok Menpekotasun, Desgaitasun eta Gizarte-Zerbitzu Batzordearen jarduera aipagarrienen laburpen xehakatua egin zuen.

Era berean, Andrea Scolarik, Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko kide eta bozeramaileak, 2024rako proiektatu diren prestakuntza-proposamenak banakatu zituen, kolektiboari irekietako kontsulta-prozesuan zehar jasotako kezkei erantzuteko asmoz.

Horretaz gain, arduraduna den aldetik, Kirol, Kirol Egokitu eta Barneratzaile Batzordeak azken seihilekoan egindako jarduera nabarmenenak azaldu zituen.

Zalantzarik gabe, azpimarratzekoa izan zen Elkargoko Batzarrak ikerketa sustatzearen alde egindako apustu irmoa. Ildo horretan, Fernando Lázaro elkargokideak 2023an jarduketa-eremu horretan egindako jarduera eta proiektuak azaldu eta partekatzeko aukera izan zuen, baita 2024rako proiektatuak ere.

Gai-zerrendako puntu garrantzitsuenetakoa “2024ko kuotak eta Aurrekontua onestea” izan zen, eta elkargoko diruzain Edurne Anduezak heldu zion gai horri. Hasiera batean 2024rako elkargoaren kuotak eta izen-ematea izozteko proposamenari uko egin ondoren, eztabaida luzea sortu zen, askoren ustez ohiko kuotaren zenbatekoa “gehiegizkoa” baita. Andueza andreak ezezko boto horren eragin funtzional nuluari buruzko beharrezko azalpenak eman zituen, Elkargoko Batzarrak izozteko proposamen bakarra aurreikusi baitzuen. Indarreko araudian xedatutakoari erantzunez, proposamenari uko egitearen ondorioz, oraindik indarrean jarraitzen duten azken zenbatekoak mantenduko dira, eta horiek bat datoz ezeztutako izozte-proposamenarekin. Halaber, kuoten karga gehiegizkoa dela uste izateaz gain, kontularitzako kudeaketaren eta elkargoko politiken zenbait alderdiri lotutako desadostasunak eta kexak adierazi ziren –aurrekontu-proposamenak behar bezala aztertzeko epe laburregiak; zenbait partida are gehiago xehakatzea, hala nola dietei eta ordezkatze-gastuei buruzkoak; eskainitako zerbitzuak...–.

Iradokizunen, kexen eta hausnarketen inguruko tira-biren ondoren, 2024ko Aurrekontu Orokorrak onesteko bozketa eskatu zen, eta behin betiko onetsi ziren gehiengo sinplearen bidez.

Andueza elkargokidearen hitzetan, aurkeztutako aurrekontu orokorren zenbatespena eskertzetik harago, kuoten proposamenaren hasierako uko egiteak eta kontularitza-arloan duen eragin nuluak ez dio inolako oztoporik ekarri behar entzute aktiboko jarrera arduratsua eta partekatutako iradokizunak aztertzeko konpromisoa hartzeari. “Gogoan izango dugu, eta kezkei erantzun egokia ematen saiatuko gara”.

Azkenik, kontuen eta instituzioaren finantzen egoera aurkeztearekin batera, berankortasun-balantzea aurkeztu zen; balantzeak itxaropenak ematen ditu, emaitzak positiboak izan baitira, zorra geldiarazi delako ez ezik, hasitako monitoretza-proiektu gehiago ere amaitu direlako.

***Komunikazio Batzordea***




# Fisioterapiako VIII. Euskadi Sariak

Fisioterapiako Euskadi Sarien VIII. edizioa berriro ere Bilbon egin zen, abenduaren 16an, fisioterapiaz beteriko urteari amaiera emateko.

Oroimen-ariketa txiki bat egin eta gogoratuko gara sarien ekimena 2015ean sortu zela, eta helburu nagusi du lanbide onetan egunero egiten den lan handia aitortzea, pazienteekin eguneroko harremanari dagokionez, eta ikerketari, osasuna sustatzeari eta fisioterapiaren arloko profesional garrantzitsuen ikerketei emandako denborari dagokionez, elkarrekin, guztiok batera, pertsonen bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko lan egiteko.

Fisioterapia osasuneko lanbide gisa finkatzeko lana hainbat arlotatik egiten da, eta, hori dela eta, sei kategoriatan banatu ziren fisioterapiaren lana garatzen den arloak; horietako 5 entregatu ziren, Gradu Amaierako Lanaren kategoria hutsik geratu baitzen.

Fisioterapeutak ez dira fisioterapian aurrera egiten laguntzen duten pertsona bakarrak. Badaude kolektiboa erreferentziazko osasun-profesional gisa identifikatzeko gizartea sentsibilizatzen duten eta horren alde egiten duten pertsonak ere, hala nola hedabideak eta kazetariak, zeinak bozgorailu gisa jarduten duten eta herritarrei lanbidearen benetako garrantzia helarazten dieten. Edizio honetan, **Komunikazio Atal Hoberenaren saria** El Correoko Alba Cárcamo kazetariak jaso du; izan ere, iazko urrian egindako Zahartzaro Berriari buruzko Jardunaldien babesle nagusia izan zen, eta kide den talde editorialean jardunaldi horien eragin mediatikoaren arduradun nagusia izan zen.







**Fisiolagun Saria**, fisioterapiaren arloan lan egin gabe hori sustatzen duten euskal enpresak saritzen dituena, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak jaso zuen, Euskadiko kontsumitzaileak babesteko lege-mekanismoak aztertu eta aktibatzeagatik, eta, irakaskuntza ez-arautuen eta titulazio ez-ofizialen arloan, prestakuntza-produktuen erabiltzaileen informaziorako eskubidea arautu eta beraien interes ekonomikoak babesteko Dekretu berria sustatu zuen.

Edizio honetako **Urteko fisioterapeutarik onenaren saria** biri eman zitzaien, Irma Soriano eta Nerea Pradari; biek hala biek fisioterapia pediatrikoa dute ardatz eta Atlas 2030 exoeskeletoaren erabileraz behaketa-azterlana egin zuten garun-paralisia edo antzeko patologiaren bat zuten 19 haurretan, eta mundu mailan exoeskeleto hori erabiltzen aitzindariak izan dira.

**Ikerketako saria**, fisioterapia garatu eta finkatzeko ezinbesteko motorretako bat, Ion Lascurainentzat izan zen "Efectividad de la movilización neural para el tratamiento cervicobraquial relacionado con los nervios: una revisión sistemática con metaanálisis de subgrupos" (Mobilizazio neuralaren eraginkortasuna nerbioekin zerikusia duen min zerbikobrakiala tratatzeko: azterketa sistematikoa azpitaldeen metaanalisiarekin) lanagatik.

Ekitaldia amaitzeko, **Ibilbide profesional onenaren saria** eman zitzaion Jesus Celaiari; fisioterapiari eskainitako bizi oso bat aitortzen da sari horrekin, zehatz esateko, goi-mailako kiroleko fisioterapiari eskainitakoa, Bilboko Athleticen 1. taldeko fisioterapeuta izan baita 17 denboralditan eta Club Deportivo Bilbao pilotalekuan Asegarceko palistena ere bai.

***Komunikazio Batzordea***





# Ikerketarako 2023ko Laguntzak

2023an zehar elkargoak egindako apustu handienetako bat izan da ikerketarako lehenengo laguntzak abiaraztea, Euskadiko fisioterapeuten artean jarduera-mota hori sustatzeko, eta laguntza horiek urtero ateratzeko konpromiso irmoa hartu du.

Batzarrean onetsitako aurrekontua 14.000 eurokoa izan zen, eta honako hauek izan dira urterako aurreikusitako laguntzak:

- Ikerketarako 2 laguntza: 6.000 euro laguntza bakoitzeko.
- Atzerrian egonaldiak egiteko 2 laguntza: 500 euro laguntza bakoitzeko.
- 2 laguntza argitalpen zientifikoetarako: 500 euro artikulu bakoitzeko.

Eskaerak jaso ostean, eta aurrekontu horietatik 1.500 euro hutsik geratu zirenez, Biltzarretarako Laguntzen ezohiko deialdia egin zen, aurrekontuko % 100 erabiltzeko. Ebaluazio-prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko, eskaerak Batzorde Zientifiko batek ebaluatu zituen; batzorde hori elkargoko arduradun batek eta ikerketan adituak diren kanpoko ebaluatzaileek osatu zuten. Ebaluatzaile horiek ikerketan izandako ibilbideagatik eta autonomiako, Espainiako eta/edo nazioarteko instituzioetan duten posizio akademikoagatik hautatu ziren.

Laguntzak abenduan entregatu ziren, Batzar Nagusia egin ostean, eta honako hauek izan ziren irabazleak: Igor Sancho Amundarain eta Guillermo Andrés Mazzucoc ikerketarako 2 laguntza jaso zituzten "The efficacy of early implementation of plyometric exercise in the rehabilitation of people active in running sports with achiles tendinopaty: a randomised













clinical trial" eta "Estudio de la disnea multidimensional desde la visión neurocientífica: análisis de la actividad cerebral y mecanismo musculares periféricos en reposo, esfuerzo y con diferentes soportes" lanengatik, hurrenez hurren; Nuria Martínek atzerrian egonaldia egiteko laguntzetako bat jaso zuen; eta, bestalde, Josu Zabala Mataren "Restoration of normal central pain processing following manual therapy in nonspecific chronic neck pain" proiektuak eta Ion Lascuarain Aguirrebeñaren "Effectiveness of neural mobilisation in patients with cervicobrachial pain of nerve origin. A systematic review with subgroup meta-analysis" proiektuak Biltzarretarako Laguntza erdibanatu zuten.

*Komunikazio Batzordea*

# Laguntza teknikoen dohaintzak egiteko IV. kanpaina

Beste urte batez elkargoak produktuen dohaintza kanpainan parte hartu du; BAT Municipal (Laguntza Teknikoen Bankua) delakoak antolatzen du eta Bultzatu Fundazioren kargura izaten da; elkargoan erroldatutako guztiei mezu elektroniko bat igorri zaie, eta webgunean eta sareetan eman da kanpainaren berri. Era berean, elkargoaren egoitza eskaini genuen materialak jasotzeko.

Bizkaiko herritar guztiak gonbidatu ziren ohe artikulatuak, gurpildun aulkiak, taka-takak eta antzeko produktu lagungarriak eman zitzaten, berrerabiltzeko moduan egonez gero.

Dohaintzan emandako artikuluak behar duten pertsonei elkartasunezko maileguak egiteko erabiltzen dira, eta lehentasuna izaten dute egoera zaurgarrian daudenek. Hori da, hain zuzen, BAT Municipalen eta duela lau urte hainbat udalekin batera ematen hasi zen zerbitzuaren xedea, horrelako produktuen beharra asetzeko.

Dohaintzan emandako artikuluak BAT Municipaleko taldeak jasotzen ditu, aztertu egiten dira, erabiltzeko prest jarri eta garbitu eta higienizatu egiten dira, beste pertsona batzuei eman ahal izateko.

Kanpainaren xedea da laguntzeko produktu kopurua haztea, gero eta mailegu-eskera gehiago baitago, kontuan izanda pertsona eta familia askoren ongizaterako zenbateko garrantzia duten. Sentsibilizatu ere egin nahi da laguntza tekniko horiek berrerabiltzearen egokitasunaz, behar dituztenen esku jarri ahal izateko; horren bidez kultura eta ohitura sortu nahi da Bizkaian.

Dagoeneko hiru kanpaina egin dira (2020, 2021 eta 2022an) Bultzatu Fundazioak sustatuta, eta oso emaitza onak lortu dira. Horiei esker 500 dohaintza baino gehiago jaso ziren eta 249 familia baino gehiago artatu dira. Laugarren edizioan beste 67 erakundek ere hartu dute parte, Bizkaia osoari dei egin nahi izan zioten elkarteak, udalak eta enpresak zeuden, besteak beste.

Azken edizioaren leloa "Dohaintza gehiago gizarte estaldura handiagorako" izan zen, dohaintzen egiazko esanahia azpimarratzeko; BAT Municipalek lau urte horietako jardueratik atera duen ondorio nagusietako bat izan da produktu horietarako sarbidea bermatzea beharrezko gizarte estaldurara dela eta asko baloratzen dutela erabiltzaileek.

Deialdiren aurkezpen publikoa egin zen UPV/EHUren Bilboko Bizkaia Aretoko Arriaga gelan, azaroaren 24ko eguerdiko 12:00etan; erakunde sinatzaileak (elkargoa da horietako bat) bertan izan ziren. Hala, kanpaina ofizialki hasi zen. Inés Venero Bultzatu Fundazioaren presidentea da eta fundazio horrek kudeatzen du BAT Municipal, eta laguntza teknikoen dohaintza-kanpainaren funtzionamendua azaldu zuen; Marcelino Fernández FEKOOR eta BENE elkarteko presidentea da eta baterako deialdia irakurri zuen, eta José Manuel Blasco BAT Municipaleko koordintzaileak, jasotako babesak aipatu zituen.

*Andrea Scolari*



# Bizitza-luzera berriari buruzko astea

Urriaren lehenengo astean eta Bizitza-luzera berriari buruzko astearen baitan, elkargoak bi ekitaldi egin zituen paradigma berri hau ezagutarazteko, eta Diego Bernardini izan zen gonbidatu nagusia, sendagilea, fisioterapeuta eta kontzeptu horren sortzailea.

"Ezagutu nola bizi osotasunean 50 urte ondoren" izan zen Bernardinik Bilbon eskaini zuen hitzaldia eta bizitzako etapa horretan adin biologikoan finkatu gabe ibiltzeko deia egin zuen, aurreko hamarkadetako bizipenak aprobetxatzeko erronka planteatu zuen, eta osasuna gaixotasunik eza baino gehiago zela esan zuen.

Fenomeno hori ezagutzeko, Bernardinik 360 graduko gerturatze berritzailea egin zuen, non belaunaldi gazteenen egitekoa gero eta garrantzitsuagoa den eta bizitza-luzerari buruzko pedagogiaren beharra ere bai.





Era berean, eta Bizitza-luzeraren paradigma berri horretan fisioterapian berariaz zentratuta, Donostian egin zen "Fisioterapiaren zeregina bizitza-luzera berrian" jardunaldia, programa zabalarekin eta ospe handiko hizlariekin eta bi alderdi aztertu ziren: berrikuntza teknologikoa eta fisioterapia, funtsezko arloa baita paradigma berri honetan.

Diegon Bernardini bizitza-luzera berriaz aritu zen fisioterapiaren ikuspegitik, eta jarraian teknologia berriei buruzko hitzaldiak hasi ziren. Francisco José Parejak Trak Silver tresnaz hitz egin zigun, tele-errehabilitazioko tresna zahartze osasuntsua sustatzeko. Aitor Martín eta Raquel Medinak "Estimulazio elektriko funtzionala" eta "Neuromodulazio ez inbaditzailea" aipatu zituzten eta Carmen Martínek neuro-errehabilitaziorako robotikako tresna berriak azaldu zituen lehenengo eguna amaitzeko.

Bigarren egunean Javier Jerez izan genuen "Zoru pelbikoko osasuna zahartzaroan" hitzaldiarekin eta jarraian Victoria Alcaraz biriketako errehabilitazioaz "Arnas-fisioterapiaren egitekoa bizitza-luzera berrian" hitzaldiarekin.

Serafín Ortigueirak neuro-errehabilitazioan eta zahartzean bibrazio fokala zer zen azaldu zuen eta jarraian "Fisioterapia eta sarkopenia, binomio banaezina edo banagarria?" hitzaldia eskaini zuten María Ángeles Carderok eta Luis Espejok. Iván José




Fuentesek ere sarkopenia aipatu zuen eta María de la Cabeza Lópezek gauza bera egin zuen "Onkogeriatriako fisioterapia" hitzaldiarekin.

"Jardunaldia amaitzeko, Joan Ars-ek garunaz eta buru osasunaz hitz egin zuen "Narriadura kognitiboa eta fisioterapia" hitzaldian eta azkenik "Buru-osasuna bizitza-luzera berrian" hitzaldia eskaini zuen Miguel Muñoz-Cruzado y Barbak.

*Komunikazio Batzordea*




Diego Bernardini


Francisco José Pareja


Aitor Martín


Raquel Medina


Carmen Martín


Victoria Alcaraz


Serafín Ortigueira


Luis Espejo


Iván José Fuentes


Javier Jerez


María Ángeles Cardero



Miguel Muñoz


Joan Ars


María de la Cabeza López

# Esperientziak partekatzen diziplina anitzeko ikuspegitik

Abenduaren 2an izan zen Getxoko Fadura kiroldegian "Fisioterapia eta kirol egokitua; esperientziak partekatzen diziplina anitzeko ikuspegitik" jardunaldi presentzial eta doakoa, Euskal Herriko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren Kirol, Kirol egokitu eta Barneratzaile Batzordeak eta Haszten elkarteak antolatuta. Desgaitasuna duten pertsonen nazioarteko eguna ospatzeko egin zen topaketa, abenduaren 3an izaten baita.

Haszten elkartea dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lanean aritzen da kirolaren eta jarduera fisiko inklusibo eta egokituaren bidez, Bizkaian. Egiteko horretarako diziplina anitzeko eta diziplinarteko taldea du, dibertsitate funtzionala duten pertsonen, horien familien eta inguruaren irisgarritasun unibertsalerako eskubidea bermatzeko, 5 plano hartzen dituen ekintzen osoko plan baten bidez: elkartea, federazioa, udalerria, hezkuntza eta plano terapeutikoa.

Jardunaldian hiru hitzaldi interesgarri izan ziren: Pablo Hernándezek aurkezpena egin zuen elkarteko koordinatzaile gisa; Andrea Scolari eta Lucía Mariñok ikusgai jarri zuten fisioterapiak Hasztenen zuen funtsezko egitekoa eta beste profesional batzuekin izaten diren sinergiak, eta Mikel Erdozain Oterinok bere lekukotza eskaini zuen kirolari gisa. Ondoren, Boccia zer zen azaldu zen, kirol paralinpiko mota bat da eta sentsibilizazio-saio batean parte hartu ahal izan zen gurpildun aulkietan.

**Esku-hartzeak fisioterapiatik**

Hasztenen fisioterapia eta beste profesional batzuk (kirol-, hezkuntza-, gizarte- nahiz osasun-arlokoak) elkarrekin aritzen dira, bakoitza bere ikuspegitik ekarpenak eginez, besteekin partekatuz eta ibilbide-orria partekatuz.

Fisioterapiaren arlotik egiten den esku-hartzea pertsona artatzen duten profesionalen eta Hasztenen arteko lotura izan nahi izaten da, hau da, mundu terapeutikoaren eta kirol munduaren arteko elkarrekintza izan nahi da, pertsona bat bera baita mundu desberdinetan bizi arren. Eta bi mundu horiek zenbat eta gehiago ezagutu elkar eta zenbat eta elkarreragin handiagoa izan, askoz hobe.

Gaur egun, fisioterapiak funtsezko presentzia du bi arlotan: balorazio funtzionaletan eta terapia akuatikoan. Honako programa hauetan hartu da parte:

- Goi-errendimenduko zerbitzu indibidualizatua: Getxo Arraun Kluba
- Kirol-zerbitzu indibidualizatua: atletismoa
- Ikasten: ikasgela egonkorren programa, igeriketako aholkularitzarekin
- Kirol inklusiboko programa: gimnasia erritmikoa Sakoneta Klubean.
- Osasun Haszten: ariketa fisikoko programak uretan eta lehorrean
- Mugilan: ariketa fisikoen programa lantegi okupazionalentzat Lantegi Batuak, Rafaela María, Gaude, Gallarreta eta Usoarekin.

Esku-hartze fisioterapeutikoaren beharra garatzen ari den jarduera batean hauteman daiteke (adibidez, lantegi okupazional bateko ariketa fisiko programa baten erabiltzailea) edo Elkartera datorren eta kanpoko laguntza behar duen erabiltzaile berri baten bidez.

Programen kasuan, telefono bidezko elkarrizketa egiten da datuak eta txostenak eskatzeko, balorazio presentzial bat ere egiten da eta zentroko profesionalen eta jardueraren ardura duen kirol-teknikariaren iritziak jasotzen dira. Balorazioen fitxa bat egiten da gomendioekin.

Uretako terapian ere antzeko prozedura dago. Hazstenekin lehen harremanak izaten dira, familiek kasu bakoitza azaltzeko eta osasun arloko profesionalen txosten klinikoak aurkezten dituzte. Hortik aurrera, behar pertsonalak baloratzen dira eta esku-hartzerik egokiena zein litzatekeen baloratzen da, egoera klinikoa eta familiaren eskakizunak kontuan izanda. Berariazko terapia indibidualizatu bat behar izanez gero, fisioterapeutarekin harremanetan jartzen dira, kasua ebaluatzeko.

Txosten klinikoekin eta ondoren familiari edo erreferentziako pertsonari egindako elkarrizketarekin, fisioterapeuta profesionalak esku-hartzeko plan bat egiten du, epe labur, ertain eta luzeko helburuak kontuan izanda. Horrelakoetan berariazko balorazioa egiten da uretan eta gaitasun funtzionalez gain, uretan nola moldatzen den baloratzen da; izan ere, helburuak ez aldatu arren, metodologia erabiltzaile bakoitzera eta uretan duen gaitasunera egokitu behar da. Orain arte tratatutako patologiak ea gaur egun aktibo dauden profilak askotarikoak dira: Perthes, autismoaren espektroko nahasmenduak eta bizkarrezur-muineko lesioak, besteak beste. Gaur egun banako 4 terapia egiten dira Erandioko kiroldegiko igerilekuetan ostegun arratsaldez 40 minutuko saioetan.

Haszteni buruzko informazio guztia webgunean dute: https://haszten.org/

Jardunaldiko bideoa hemen dago ikusgai: https://www.instagram.com/p/C0jDZuHt4eM/

*Andrea Scolari eta Lucia Mariño*




# Nazioarteko egonaldiari buruzko memoria

Nuria Martín naiz, eta haurren eta helduen etapan dibertsitate funtzionala dutenen fisioterapeuta naiz. Urteetan, praktika klinikoan ikusi dut populazio horrek espazioan mugitzeko zailtasun oso garrantzitsuak dituela. Espazioan arrakastaz eta eraginkortasunez mugitzeko pertsonek duten gaitasunari nabigazio espaziala deitzen zaio, eta jarduera horrek hainbat sistema integratzea eta koordinatzea eskatzen du. Egunero egiten dugun jarduera konplexu horretan, lokomozio-sistema, pertzeptibo-motorrarekin, funtzio betearazleekin eta memoria eta integrazio bisoespazialarekin batera koordinatzen dira, besteak beste, mugitzen ari den gorputza eta gorputza inguratzen gaituen espazioari dagokionez behar bezala hautemateko. Horrek feedback bat sortzen du, eguneroko bizitzan espazioan mugitzeko beharrezkoak diren jarrera-doikuntzak prestatzen laguntzeko. Ikerketan, nabigazio espazialaren garapena ardatz izan duten azterlanak nabigazioaren alderdi kognitiboenean, orientazioan eta memoria espazialean oinarritu dira. Eta lokomozioan zentratutako azterlanak martxaren parametro biomekanikoak edo espazioaren eta denboraren parametroak ebaluatzera bideratu dira. Nolanahi ere, ezer gutxi dakigu nabigazioko pertzepzio- eta mugimendu-parametroen garapenari eta eraginari buruz.

Hori dela eta, duela zenbait urtetik, behaketa klinikoak funtzio bisoespazialak eta nabigazio-funtzioak aztertzera bultzatu ninduen. Doktorego-tesia hasi nuen Coruñako Unibertsitateko Neurozientzien programan, Robles-García eta De las Cuevas-Terán doktoreen zuzendaritzapean. Zehazki, aztertutako populazioa haur goiztiar osasuntsuak izan ziren. Horiek, patologia handiagorik ez izan arren, zenbait sistemaren heldugabetasuna erakusten dute, eta, zehazki, garunaren hazkunde desberdina, inguruabar perinatal konplexu batzuen barruan, eta horrek guztiak funtzio batzuetan eragin dezake, hala nola bisoespazialetan. "Proyecto MoVE" izeneko azterlan horren barruan, hirurogeita hamar haur goiztiarren jarraipena egin genuen Santanderreko Marqués de Valdecilla Unibertsitate Ospitalean, sei hilabetetik bi urte bete arte (adin zuzendua). Garapen motor lodi eta finarekin eta garapenean integrazio bisomotorrarekin lotutako funtzioak ebaluatzeaz gain, sistema bisomotorrarekin lotutako zenbait prozesu kognitibo ere ebaluatzen ditugu, hala nola memoria topografikoa (memoria bisoespazialaren parte dena) bi urterekin, eta adin horretara egokitzen dugu haurrentzako dagoeneko baliozkotuta dagoen tresna bat, Walking Corsi testa. Horretarako, tresna honen




sortzailearekin harremanetan jarri ginen: Laura Piccardirekin, irakaslea, psikologoa, Erromako Sapienzako Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea eta Spatial Cognition Lab zentroko ikertzaile nagusia. Atsegingarria da Piccardi doktorea eta antzeko ikertzaile handiak ezagutzea, eta jabetzea, gainera, pertsona handiak direla; Piccardi doktoreak dena erraztu zigun eta harremana izan genuen lehen unetik lagundu zigun.

Nahiz eta Piccardi doktorearekin etengabeko harremana izan eta berarekin eta haren taldearekin zenbaitetan elkartu, egiten zuten lana pertsonalki ezagutu nahi nuenez eta kognizio espazialari buruzko ezagutzak areagotu nahi nituenez, haren laborategian nazioarteko egonaldi bat egiteko eskabidea egin nuen. Gainera, egonaldi hori egiteak nazioarteko aipamena duen doktoregoa egiteko aukera ematen du doktorego-programan. Hori dela eta, Doktorego Programaren Batzorde Akademikoak eta Sapienzako Unibertsitateak -zehatz esateko Piccardi doktoreak- onartu ondoren, egonaldi bat egin ahal izan nuen Unibertsitate hartan. Iritsi nintzenean egonaldian parte hartu ahal izateko zenbait proiektu planteatu zitzaizkidan, era berean, nire doktorego-tesiko “Proyecto MoVE” delakoarekin zerikusia zuten proiektuekin jarraitu eta berriak aktibatu ahal izan nituen. Proposamenen interesa handia izan arren, erabaki konplexu bat hartu eta 0 eta 12 urte arteko haurren “Norabidearen zentzua” (NZ) ebaluatzeko galde-sorta bat garatzeko proiektu batean parte hartzea erabaki nuen.

NZ inguruan nabigatzeko trebeziaren pertzepzioa da. Orain arte pertsona helduentzako galde-sorten bidez ebaluatu da, baina ez dago garapen tipikoko nahiz atipikoko haurrengan funtzio horiek ebaluatzeko testik edo galde-sortarik. NZn hainbat zergatik izan dezakete eragina, haurren garapenak esaterako, baina baita gurasoen ezaugarriek edo tasunek ere eta potentzialki erlazionatuta dago haurrei ingurua arrakastaz miatzeko aukera murrizten dieten jokabideekin. Talde ikertzailearen asmoa zen, Samuelle Russo doktorearen laguntzarekin galde-sorta bat garatzeaz gain familien pertzepziotik funtzio hori ebaluatuko duena, gurasoen jokabidearen ondoriozko atxikimendu-estiloari buruzko informazioa ere aztertzea, zeharkako eragina izan dezakeelako haurren NZ horretan. Gehiegi babesten duten gurasoek haurren esperientzia esploratzaileak muga ditzakete. Bestalde, atxikimendu ez-seguruko estiloa duten haurrek ingurua esploratzea saihets dezakete. Puntu honetan erabaki genuen galde-sortan zenbait begirada sartzea alderdi kognitibotik, lokomoziotik eta pertzeptibo-motrizetik. Lan oso aberasgarria eta beharrezkoa da haurren nabigazio espazialaren garapenaren globaltasuna ulertzeko, baina oso konplexua eta anbizio handikoa ere bada, haurren garapen kognitibo eta pertzeptibo-motriz dena hartzen baitu barruan. Horregatik, eta beste jarduera batzuen artean, egonaldian aditu talde bat eratu zen diziplina desberdinetatik, galde-sorta garatzeko. Proposatu zen galde-sortaren literatura eta garapena aztertu ondoren aditu taldeak beharrezko ekarpenak egin ahal izatea.

Egonaldian egindako jardueren eta izandako harremanen eta alor desberdinetako adituekin izandako bileren beste helburuetako bat izan zen etorkizunean galde-sorta erabili ahal izatea SOD populazio desberdinetan ebaluatu ahal izateko, eta populazio klinikoetan, eta horien artean haur goiztiarretan. Literatura zientifikoa aztertuz lehen gerturatze bat egin ondoren, Piccardi doktorea eta ni ohartu ginen oso konplexua dela haurren garapenaren alderdi horiek guztiak eta gainera hain etapa desberdinetan (0 urtetik 12 urtera) kontuan izango zituen galde-sorta bat egitea; beraz, galde-sorta zatitzea erabaki genuen etapa desberdinetan garatzeko. Konplexutasun horren ondorioz, uste baino denbora luzeagoa inbertitu behar izan da. Baina galde-sorta horren garapenak izan dezakeen ondorioa kontuan izanda, egonaldiaren ondoren proiektuarekin jarraitzea erabaki zen; horrenbestez, proiektua aktibo dago gaur egun.

